


R3DESING YOUR WORLD



NORTZUK GARA?

Danon begietara ikasle talde bat. Baina proiektu honetan, ekintzaileak, ameslariak, irabazleak, eta kideak gara, esku bete lan ibili garenok proiektu hau aurrera ataratzeko. R3DESING YOUR WORLDEk gutako guztion zeozer dauka, horregatik da hain berezia eta hain indartsua.

ZEIN DA GURE MISIOA?

Argi dugu gure enpresaren misioa ez dela produktu edo zerbitzu bat soilik merkatuan kokatzea, gure bezeroei esperientzia bat eskaintzea baizik. “R3DESIGN YOUR WORLD”ek soluzio integral bat eskaintzen du, hau da, produktu konkretu batetik, 3D inprimagailuak gure kasuan, bezero bakoitzari bereziki pentsatutako salmenta prozesu pertsonalizatu bat sortzen dugu. Badaude enpresak inpresoren munduan lan egiten dutenak baina ez dutenak inolako zerbitzurik eskeintzen guk ematen dugunaren bezelakoa. Guk lehen aipatu dugun bezela, soluzio integral bat eskaintzen dugu.

Lehendabizi inpresorak saltzen ditugu eta ondoren inpresora horrerik etekin maximoa ateratzen erakusten diogu bezeroari azalpen eta erakusketen bidez. Edozein esparrutan (Hezkuntzan, kultur guneetan, partikularretan...) gure azalpena ezin hobea izango da, gailu honen ezaugarri guztiak azalduz.

Baina gure lana ez da salmentaren momentuan amaitzen. Salmenta osteko edo “post-venta” zerbitzu bikaina eskeintzen dogu. Gainera azalduta, hurrengo ataletan sakonduago dagolako, guk gailuaren arazo eta ezbeharretaz ere arduratzen gara. Gugaz komunikatzeko hainbat erreztasunen bidez, ahal bezain fite, behar dan lekura joango gara gure lana era ezin hobeko batez betetzera.

ZER NAHI DOGU EGIN GURE GIZARTEGATIK?

3D inprimagailuen mundua oraindik ez da guztiz arakatu, baina argi dago gure etorkizuneko ezin besteko gailua izango dala. Hurrengo ataletan aipatuko dan moduan, inprimagailu honek hainbat sailetan izugarrizko garapena jasan dau, lana era askotan erreztuz. Gure asmoa, gailu zoragarri hau gizartean guztiz finkatzea da, zientzia eta teknologia arloan gure ekarpen pertsonala egiteko. Horregatik gure zerbitzua bikaina izatea nahi dogu, gure misioa eta bisioa ahalik eta hoberen betetzeko.